



LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOA

Elezaldea-Eguen, 3 – 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)
Tfnoa.:94 684 29 82 Web:www.leaibarra.es

ETXEZ – ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.- Eskatzailearen NAN edo AIZ originala, edo beste identifikazio-agiri baliokideren bat, eta, hala badagokio, haren ordezkari baimenduarena, bai eta koordainketa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko bizikidetza-unitateko gainerako pertsonena ere. Pertsona horietakoren bat adingabea bada eta NANik ez badu, familia-liburua aurkeztu beharko da.

2.- Eskatzailearen eta zerbitzuaren erabiltzaileen mediku-ziurtagiriak, beharrezkoa izanez gero.

3.- Ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratua, hala dagokionean.

4.- Koordainketan sartu beharreko familia-unitateko kide bakoitzak (zerbitzuaren titularrak eta etxebizitza berean bizi den senarrak edo emazteak zein izatezko bikotekideak, eta 18 urtera arteko seme-alabek (adin hori barne), edozen kasutan, edo 26 urtera arteko seme-alabek (adin hori barne), baldin eta etxebizitza berberean bizi badira eta langabezian edo ikasten badabiltza, eta ezgaitasunen bat duten seme-alabek (adina edozein dela), gutxienez %33ko minusbaliotasuna badute, etxebizitza berberean bizi badira eta ekonomikoki familia-unitatearen mende badaude) sinatutako agiria, zeinaren bidez Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoari, bai eta dagozkion erakundeei ere, baimena emango zaien kide bakoitzari buruzko informazio hau eskatzeko:

- Bizi den udalerriko udalari errolda- eta bizikidetza-ziurtagiriak eskatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailari Ondasunen Ziurtagiria eta azken errenta-aitorpena eskatzeko.
- Estatuko Ogasunari Ondasunen Ziurtagiria eskatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari: erreferentziazko urtean jasotako gizarte-laguntzak eta errentak eta mendekotasunaren balorazioa eskatzeko.
- Lanbideri: erreferentziazko urtean jasotako laguntzak eta errentak eskatzeko, baldin eta mankomunitateko gizarte-zerbitzuetan informazio hori eskuragarri ez badago.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari eta Itsasoko Gizarte Institutuari, pentsioaren ziurtagiria eskatzeko.

5.- Pentsio-plan pribatuak eta/edo publikoak eta antzekoak: erreferentziako urtean jasotako urteko diru-sarrerak.

6.- Banku-erakundeei: titularraren (bakarra nahiz partziala) aktibo higigarrien urteko batez besteko saldoa eta aktibo higigarriek erreferentziazko urtean sortutako urteko interesak eta errentak.

- Erreferentziako urte horretan ordaindutako interesak eta zenbateko amortizatua, ordaindutako maileguenak, sinatutako maileguenak, banaka nahiz beste pertsona batzuekin batera.

7.- Eusko Jaurlaritzaren alokairu-kontratuen erregistroa.

8.- Zerbitzuaren onuradunak adierazitako kontutik dagokion koordainketa kobratzeko baimena ematen duen agiria.

Zerbitzua jasotzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioaz gain, espedientea izapidetzen den bitartean edo zerbitzua ematen den bitartean, egokitzat jotzen den beste edozein dokumentu ere eskatu ahal izango da.